

ERRENTERIA / Ipuin kontaketa saioak hasiko dituzte gaur

Ipuin kontalarien emanaldiak 5 urtetik gorako haurrentzat dira; aurreko urteetan bezala ostegunetan izango dira

A. AMAS

Ipuin kontaketak egingo dituzte gaur, Xenpelar Etxeko Haur Liburutegian. Ikasturte berrian ere ez dituzte alde batera utzi nahi izan ipuin kontalarien emanaldiak.

Aurreko urteetako eguna eta ordutegia mantendu dituzte sasoi berrian ere. Ostegunero izango dira, 18:00etatik 18:45era. Gaurko lehenengo saioan Ipuin abarrez, gu irribarrez ipuina kontatuko dute. 5 urtetik gorako haurrei zuzenduta daude saio guztiak eta antolakuntzatik gogorarazi dute emanaldi guztietarako sarrera doan izango dela.

Julio Vernereren erakusketa

Liburutegitik gogorarazi dute Julio Vernereren Irudimenetik errealitatera erakusketa martxan dagoela, eta urriaren 15era arte ikusi ahal izango dutela interesa dutenek, astelehenetik ostiralera, 16:30etik 20:00etara.